

Jose Luis Unamuno Gorrotxategi

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1928-2007)*

Aurkibidea

Biografia



Etxebarri baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 1992ra arte, Magdalena Gabilondo (Aldasoro-Etxetxo baserria) emaztea hil zitzaion arte. Baserriko lanez gainera, lantegian egin zuen lan.

Zintak

SOR-001

• **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2001-04-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Unamuno, Egoitz

SOR-002

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2001-05-15
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Unamuno, Egoitz

SOR-003

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2001-05-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Oregi, Benan
- **Emalea:** Unamuno, Egoitz

SOR-014

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2002-01-01
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-028

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2004-09-28
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Astoarekin herrira saltzera

- **Erref:** SOR-001/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:40

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroñera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Astoarekin herrira saltzera. Prezioak. Kaleko atsoak beti demandan. Tripa handirik ez zuen inork.

2. Umetan fraka motzak

- **Erref:** SOR-001/004
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:30:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Umetan fraka motzekin. Fraka luzeak jantzi zituenean, mutil izateari laga.</p>

3. Umetako jolasak; okerkeriak

- **Erref:** SOR-001/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Boletan egiten zuten. Umetako jolasak: harrapatzen. Umetako okerkeriak. Tronparekin; burdinazko erroberarekin jolasean.</p>

4. Erljioaren garrantzia

- **Erref:** SOR-001/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Domeka arratsaldetan etxeko nagusiek zer egiten zuten. Astegunetan San Andresen ez zen mezarik egoten. Konfesatzera ere joaten ziren "bihako juan...!". Soraluzeko abadeak.

5. Goizean goiz mezara

- **Erref:** SOR-001/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Goizean goiz mezara lasto-azaoarekin.</p>

6. Lur-zuloak bide bazterretan

- **Erref:** SOR-001/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:39:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetako okerkeriak. Lur-zuloak bide bazterretan.</p>

7. Aizkolari ezagunak; posturak

- **Erref:** SOR-001/013
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:46:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Aizkolari ezagunak Soraluzen. Postura gogorra egin zuten Eibarren, Eibarko Izkua baserriko Pedro eta Soraluzeko Izar baserriko Josek. Entrenamenduak Azkoitian. Keixeta aizkolaria, oso ona. Postura kontuak.</p>

8. Postura kontuak

- **Erref:** SOR-001/015
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:52:35

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Beste postura batzuk. Antxitxiketan; zein lehenago ito elkar; e.a.

9. Baserriko lexikoa

- **Erref:** SOR-001/017
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:54:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Galtzua, gari-sustarrari esaten zaio.

10. Postura xelebreak

- **Erref:** SOR-001/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:55:00

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Postura kontuak. Hankan jostorratza ezetz sartu. Hanka-gorri egiten zuen garotan.

11. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref:** SOR-001/019
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:55:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetan hanka-gorri ibiltzen ziren.

12. Umetako bizimodua baserrian

- **Erref:** SOR-002/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Umetan baserrian egin behar izaten zituen lanak: behiak jetzi; esne-saltzen kalera; e.a. Ondoren eskolara joaten zen. Maristak. Eskola amaitutakoan, Atxolinera ardizain. Narruzko abarkak. Eskolan zer ikasi zuen.

13. Maristetan jasotako hezkuntza

- **Erref:** SOR-002/003
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:07:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskolan, maristetan ibilitakoa. Zer ikasi zuen; zigor gogorak jasotzen zituzten... Baserriko mutilek erdaraz jakin ez eta euskaraz egitearren izaten zituzten zigorak. Eskola kontuak. Irakasleak. Diziplina handia.</p>

14. Baserriko eta kaleko umeak

- **Erref:** SOR-002/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserriko vs. kaleko umeak. Baserriko umeak gixajoagoak beti. Baserriko bizimodua umetan. Familia giroa.

15. Familia giroa

- **Erref:** SOR-002/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Familia giroa. Amonaren inguruko kontuak. Ilea nola belzten zuen.

16. Hileta-elizkizunak: ohitura zaharrak

- **Erref:** SOR-002/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:13:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Hileta-elizkizunak. "Burdiñazko andia". Bidegurutzeetan, hilkutxa lurrean utzi eta "Pater noster" a errezatzen zen. Etxean hildakoren bat zegoenean, ez zen lanik egiten (ganajatekoa prestatu ere ez). Auzokoen laguntza.</p>

17. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref:** SOR-002/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Baserriko bizimodua umetan. Umeek egin behar izaten zituzten lanak: itulan... Bizimodua asko aldatu da.

18. Umetako gorabeherak baserrian

- **Erref:** SOR-002/008
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:14:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetako kontuak. Ez oinetako, ez jantzi egokirik... Ganadu-zain...

19. Umeen bizimodua baserrian

- **Erref:** SOR-002/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ume txikiak baserrian. Anega-erdikoan jartzen zituzten sarritan. Txiki-txikitan sorora gerturatu ere ez. Egiten ziren lanak: lurreta; laian...

20. Gerra garaia baserrian

- **Erref:** SOR-002/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerrako kontuak. Baserrian 22 abere eta 22 kristau egon zirenekoa ongi gogoratzen du.

21. Elikadura baserrian

- **Erref:** SOR-002/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:05

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko bizimodua. Zer jaten zuten: babak, urdaia eta porruak. Gaztainak.

22. Gabonak baserrian

- **Erref:** SOR-002/012
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:20:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gabonetako kontuak. Dirurik ez etxean eta erregalorik ez zuten izaten. Bizimodua asko aldatu da. Zer jaten zuten. Gabonetan familia elkartzen zen.

23. Aurrerapenak baserrian: argindarra; irratia...

- **Erref:** SOR-002/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Argirik ez baserrian. Irratia noiz ekarri zuten. Errotako argia izaten zuten, baina ura zegoenean bakarrik.</p>

24. Baserriko eta kaleko mutilen arteko harremana

- **Erref:** SOR-002/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea

Laburpena:

Kaleko mutilak eta baserrikoak. Baserriko mutilek eguzkiari begiratuta ordua igartzen zutela eta, horren inguruko pasadizoa.

25. Herriaren bilakaera: dendak; lantegiak...

- **Erref:** SOR-002/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:27:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Umea zenean Plazentzian zeuden dendak. Kooperatiba. Sacia. Herria askoz ere txikiagoa; denda bakarren bat eta lantegi gutxi. Maristen eskola. Askok aldatu da dena.

26. Idiekin garraiatzen zuten materiala: ikatza...

- **Erref:** SOR-002/017

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:28:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Kaleko giroa; eguneroko bizimodua. Idiekin trenera ikatza eramatera... Kanoi fabrikatik materiala idiekin eramaten zuten tren-geltokira. Kamiorik ez gaur bezala.

27. Errekara arrantzan egitera

- **Erref:** SOR-002/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:30:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Lanbideak » Polizia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Errekan umetan. Domeka arratsaldetan arrantzan egitera joaten ziren errekara. Guardia Zibila zaintzen ibiltzen zen. Eskuarekin zer harrapatzen zuten. Bizimodua asko aldatu da.

28. Umetako jolasak

- **Erref:** SOR-002/019
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Umetako lagunak, baserrikoak denak. Zertan jolasten zuten: harrapatzen; txori habiak topatzen... Neskak eta mutilak beti banatuta.</p>

29. Baserriko lana beharrezkoa familiaren iraupena bermatzeko

- **Erref:** SOR-002/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:30

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskola amaitutakoan, etxean hasi zen lanean. Kanean lana bazegoen, baina garia eta artoa hartzea beharrezkoa zen familia aurrera ateratzeko.

30. Erromeriak; musika plazan...

- **Erref:** SOR-002/021
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:36:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriak. San Andresen soinua egoten zen. Ilundutakoan, etxera joan behar. Erromeria ezagunak: Hirukurutzeta; Elosu... Bidekua joaz joaten ziren. Inguruko herrietako neska-mutilak elkartzen ziren. Kaletarrak ez ziren mendi-erromeriatara joaten. Klean ere musika egoten zen.

31. Erromeriak; neska-laguntzea

- **Erref:** SOR-002/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:38:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriatan dantza egin ahal izateko ordaindu egin behar izaten zen. Neska batzuk "kulape" ematen zuten. Neska-laguntzea.

32. Pazkoako txartela; konfesatu beharra

- **Erref:** SOR-002/023
- **Iraupena:** 0:07:25. **Hasi:** 00:38:25. **Bukatu:** 00:45:50

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Konfesatzera joan eta abadeak galdetutakoa. Pazkoakoa egiteko konfesatzea derrigorrezkoa. Abadeari kontatutako ipuinak. Elizako jarlekuei, "setixak" esaten zizkieten.

33. Ezkontzak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** SOR-002/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:51:15

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkontzak nolakoak izaten ziren. Bazkaria etxetik kanpo. Goizean goiz ezkondu, gosaldu, tren hartu eta Donostiara eguna pasatzera. Dotea.</p>

34. Garai bateko arrioak

- **Erref:** SOR-002/027
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:54:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Garai batean ezkontza-arrioa gurdian eramaten zen baserrira. Guenetxe baserrira, gurdian eraman zuten arrioa.</p>

35. Aharia kanpandorrean

- **Erref:** SOR-003/003
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:03:04. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>San Andresgo ahariaren kontakizuna. Aharia kanpandorrera eraman eta kanpaira lotu zuten. Egun hartako kanpaiak, xelebreak.</p>

Transkripzioa

- Ta San Andresko ahuntzana ta hori zela da?
- San Andresko ahuntzana? Adarixa.
- A! Adarixa zan?
- Bai. [Haretzek...] elizako giltza. [Elizan]. [Haura] armerua ei zuan, ta artistia [ei] zuan, gaiñera, biharrian. Ta akordau ei jakue kuadrillan: "Hi, badakik ze ein bihar doun?" ta "Zer?", "Adari bat harrapau ta kanpaiari lotu bihar jotsau" "Ta sartu?", ta "Sartu?" Eskillararik be ze egongo zuan? Han bentana txiki bat bazuan elizan --oin be han egongo da haura--, koruan, ta handik akordau ei jakuen lehenengo. [Han sartuko juau]. Batenbat sartu zela-hala barrura ta sokiakin. Ta gero [...] itxuria akordau ei jakuen: "Hi, giltza ingo juau. Giltza in ta giltzakin zabalduko juau atia. Ta gero itxi ta lagako dou adarixori ta aide!". Ta ez juan egun baten ingo, baiña giltza in in juan harek. Ta gero, harrapau juek adarixa ta baitta sartu be elizan giltzakin [han zerian] zabaldua. Sartu juek koruan, lotu jotsek kanpaiari, ta [lotu jotsek, ipini jotsek] hola, adarixa ez ei zuan allegatzen, adarretikan lotuta, ta arbixa, arbi-buru... arbi-burua. Ta adarixa, ba, haura jatera "danga! danga" ta "danga!", kanpaia joten ei juan adarixak. Zein ete dauen ta zein ete dauen, ta danak... "Ez doiak iñor barrura, ez doia... ez dao sartzerik barrura". [...] zelan zein izengo zan, eskupetekin barrura: "Garbittuko juau hor dabillena" . [...]. Juan dittuk eta: "Aiba dios! Hi, beittu! Adarixa, hi! Adarretik lotu kataiari ta nabua jakak, ta nabua harrapau ezin!" Ta harek nabua jatera golpia "taka, taka" buruakin. [...] jatera, kanpaia jo "danga! danga! danga". Ta auzo guztia, bai, ba! Danak enterau! Joe!

"Kanpaia, hi! Aiba dios! Hori dok kanpaia xelebria", ta... "Hori dok kanpaia xelebria" ta jua dituk eta adarixa. Akordau ein bihar dok, e! Akordau ez, ein! Ein! Gaur hainbeste... Hain espabillauak zarie, hain zerak zarie, ta holakotxe bat ez dozue eitten oingo gaztiak. Geuk be ez giñuan in, e!

36. San Andres elizako kanpaiak

- **Erref:** SOR-003/004
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>San Andresgo kanpaiak. Goizeko 6:00etan, albakoa. Eguerdiko 12:00etan. Erlojurik ez, eguzkiari begiratu behar.</p>

Transkripzioa

- Lehen San Andresen kanpaiak-eta jotzen zien?
- Bai, goixian seiretan albakua.
- Ta ze zan jaikitze hori?
- Jakiña, ba. Goixeko seiretan. "Daka-daka", egunero. Hamabixak egunero.
- Ta haura jotakuan jaikitzen ziñan zu?
- [...] entzun be bai. Entzun... entzuten giñuazen. [...] txabolan] lo eitten giñuanian [behixekin han ta], hartara be "danga-danga" kanpaia. "Han, seirak. [Goixeko seirak dituk]", jaiki. Aide! Lehen ez jauan erlojurik, euzkixari begiratuta igarri bihar.

37. Trumoia; baserrietako sinesmenak

- **Erref:** SOR-003/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Trumoia zetorreanean, kandela bedeinkatuak pizten zituzten. Oinaztarria baserrian sartu zenekoa.</p>

Transkripzioa

- Ta trumoia-ta zetorrenian ta be orduan...
- Ba, kandela bedeinkatuak be egoten zittuan, ta harek ixotuta ta atiak itxi ta bentanak itxi ta... Ta gure aitta hamentxe, ni ointxe nauen lekuan, jo-ta jaurti jua oñaztarrixak! Jo-ta jaurti, e! Ta eskua hola txanbututa, aieneka baten; eskurik zuzendu ezinda ta aieneka baten. Ta jaurti jua bide-saillian. Hori hor dauen... Ez, ez, ez. Hamen daon radixuau?

- Bai.
- Honetxen... hauxe iguala ixa, oñaztarririk jo-ta dana apurtu jua hor. Ta amama [...] najeua hamentxe... Bai, amama, amama uste juat. Ala Maria? Bat bai, behintzet. Hamentxe jarritta haura be tokau oñaztarririx [daonian], ta dios! Haura hor zihar garrasika baten. Horrek neuk ikusittakuak, e! Oñaztarrirakin.

38. Baserritarrak mezara

- **Erref:** SOR-003/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrir » Baserririko bizimodua » Baserririko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlirioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlirioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Albakoa. Jaiegunetan goizeko seietan meza izaten zen. Inguruko baserrietatik lasto-azaoekin jaisten zen jendea mezara. Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten ziren. Meza entzun eta etxera joan behar izaten ziren agudo behiak jeztera.</p>

Transkripzioa

- Goizetan-ta kalera-ta juaten zin... Albakua noiz izeten zan? Juaten zala goizeko seiretan mezetara...
- Mezetara? Neu be makiña bat bider juanda...
- Baiña hori noiz izeten zan?
- Jaixan! Jai goizian albakora!
- A! Jaiero?
- Jaiero. Zela, ba? Jai baten entzun ta betiko ala?
- Ta zela izeten zan hori?
- Seiretan mezia, goizeko seiretan mezia. Gero sei t´erdietara kanbixau juen.
- Ta danok juaten zifien mezetara?
- Ene! Lasta-azaoekin juaten zuan jente dana. Lasta-azauak ixotuta, danetik behera jentia.
- Ze da lasta-azaua? Nik badakit, baiña kontatzeko.
- Lasta-azaua? Garixakin eitten dan lastua, gari-lastua lotuta.
- Ta ze ikusten zan? Danian ikusten zan-ta?
- Bai, ba! Gabian argixa. Ta "Han, hi, [urten juek] Euskaten bajatuaz", "Bai", "Artetakuak be bai", ta holaxe jentia, lasta-azauakin argi eitten. Ta jarraitu ein bihar. Lasta-azaua eskuan zoianak, haura re-dios! Harek bizkor jua bihar izeten jua, bestela erre eitten zua ta.
- Ta gero argirik ez?
- Gero argirik ez. Ta ja-ta dio! Danak alkarren ondorian, muturrez aurrera, danak zaratia darixola! Goixeko seiretarako, e! Ta komurgatzera jua bihar, ta baraurik.
- Jua bihar zan?
- Ta mosua garbitzen edo ur tragua eitten badok, atzera konfesau in bihar lehenengo.
- Ta ze konfesatzen zenduan ur-tragua ein ezkeru?
- Ba, "ur tragua ein dot" eta abadiak parkatu eitten jua. Abadiak "bale", ya esta. Hari esan ezkeru, bale. Lehen holaxe zittuan.

- Ta gero handik, ze ordutan bukatzen zenduen haura mezia?
- A! Ba, mezia, ordu-erdiko mezia.
- Zazpiretan bukatu?
- Sei t´erdiak. Ta etxera aguro behixak jaztera!
- Lotara ez?
- Bai... egon hari poliki!

39. Igandetan, mezara

- **Erref:** SOR-003/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Igande goizetan, igitaiarekin belarra ebatzen zuten. Arratsaldean, auzoko lagunekin.</p>

Transkripzioa

- Ta domeketan ze eitten zenduen?
- Domeketan? Igitaixakin bedarretan lehelengo, eguerdira arte. Ta gero atsaldian, ba, [ibilttera] laguneana. Laguneana, San Andresera edo.
- Auzokuak batzen ziñien?
- Auzokuok alkarreana. Auzokuak. Gure denporia holaxen [izen dok].

40. Postura kontuak

- **Erref:** SOR-003/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Postura desberdinak. Korrikalariak; aizkolariak.

Transkripzioa

- Halatxe, halatxe. Mendira fan ta... billau mendixan ardixak nunbaittekuak eta adarixak edo ta haretxei topeka erein ta...
- Korrika-ta be eitten zian apustuak?
- Ba, gitxi. Ez jauan hamen holako apezñoik.
- Zuk ezautu zenduan batenbat?
- Zer?
- Korrika apusturen bat?
- Ezautu ez; zeintzuk zien bai bajakixat. "Luzia" Azkoittiko bat. Haura jokolari ona zuan, jokua eitten jekixan harek; eitten jakin. Jokua jokatu baiño lehenao irabazitta. Harek Eibarren jokatu juan: hankiak elizia ikutu ta zeñiek lehenao bueltia ein, Joxe Marin tabernatik edo ez dakit zela zan. Ta bat aintxiketalarixa ona, gaiñera! Azkoittiko [...]. Puf! Aintxiketalarixok [saltoka], aiba dios! Bestia, Luzia, haundi bat zuan. Luzia, aizkolarixoixe!

Bueno. [...] poliki-poliki. [...] bestia “ba!” ta anda dios! Ein jok [elizatik] bueltia edo —ein ei juan— “Ba! Irabazi juau!”. Ta bestia buelta einda [...] noizbaitten! “Hik jokua hik irabazi [...]”? Hik ez dok jokua irabazi! Ja! Jokua neuk irabazi juat!”, “Oin alleau haiz ta hori esaten atrebidu eitten haiz?”, “Bai, atrebidu eitten [nok]. Hankiak elizai ikutzia ez [juau] esan? Hik hankiak ez dotsak ikutu, hik zapatilliakin ikutu dotsak”. Ta harek erantzi abarketak, erantzi galtzia ta hankiak “dak” ikutu ei [jotsan]. Jakin!

41. Morroiak baserrietan

- **Erref:** SOR-003/013
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Morroiak baserrietan, apupiloak. Baserri gehienetan egoten ziren lanean laguntzen zuten mutilak, janari truke.

Transkripzioa

- Hamentxe egon [ei juan] soldauskia [etara] arte. Ez dakit zenbat urte ein zittuan soldau. Harek atzamarra bat eta ebaitta jekan soldauskan.
- Eta zela etorri zan, ba, haura hona?
- Ba, lehen jatera fan bihar zuan nunbaittera ta! Zeba? Lehen ez jauan janik eta basarrietara. Hamen danian egoten zittuan mutillak! Jatera! Zeoze, zeoze: baba beltza edo zurixa edo zeoze. Zeoze jatera.

42. Morroiak, neskameak baserrietan

- **Erref:** SOR-003/015
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Morroiak, kriadak, apupiloak. Batzuk baserriko lanetan lagundu eta tripa truke egoten ziren. Apupiloak, kalean lan egin eta baserrian jateagatik dirua ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- Ta gehixao apopillorik ezautu zenduan zuk hemen? Ez zenduen esaten beste neska bat be egon zala?
- Kriada bai, kriada [zittuan harek].
- Eta kriadatik apopillora ze diferentzia dao?
- Bueno, ba! Kriadak, ba, lana ein biher izeten juen; ta apopillo, harek jan ta juan eitten zuan. Harek ez juan lanik eitten, harek pagau eitten juan ta, ba, kitto.
- A! Apopillua ze izeten zan, pagau eitten zeban?

- Bai, ba! Ta kriauak eta kriadak, ba, harek lana eitten [euen].
 - Ta harek, apopilluak, ze eitten zeбен, kalia lana ta gero...?
 - Harek kalia lana ta hemen jan ta...
 - Hemen jan ta lo?
 - Jan ta lo. Ta gero jaixen-ta ganajatekuak ein ta hantxe, laguntzen.
 - Ta horretakuak baserri danetan egoten zian, e? Edo askotan?
 - Leku askotan.
 - Ta hori zegaittik zan, handik, Elgetatik, etorri bihar ta hemen ez zekalako zerik?
 - Ezer etxekorik-eta ez edo, ta nunbaittera jua ein bihar ta jan ein bihar ta lo eitteko lekua ta erropak garbittu ta [badakik...]
 - Ta baserrikeri be komeniko jakuen igual...
 - Bai, komeni edo... bai, ba. Orduan ez jauan kalia oingo moduan, e! Kalia ez jauan ezer.

43. Baserriko neskamea

- **Erref:** SOR-003/017
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserrian izan zuten neskamearen inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Ta ze eitten eben, hemen lanian ibili?
 - Ze eingo jua, ba? [...] etorten zittuan harek beren maletatxo bat edo erropatxo bat edo bi edo, boltsa edo zeozekin batuta edo, ta harek... Oin etortia moduan hor ta [harek] jua edo lo eitteko edo... zeoze. Ta umetxuak eta... “Bueno, bai, bai, etorri zaitte”, ta holaxen [ekartzen] zittuen ta hamentxe.
 - Eurak bakarrik etorten zian?
 - E?
 - Bakarrik eurak?
 - Ez. Hori Florentzi hori [...] Durangoko amaman lehengusiña batek ekarri jua. Bai, atsalde baten etorri zittuan. Neska-koskortxua. Josten ikessita jua, e! Makiñiakin, e, josten, makiñan josten. Artian zenbat urte eukiko [zittun], ba? Ez dakit, ba, nik! Hamahiru-hamalau edo, hamaika edo hamabi edo... nik ez jakixat seguru. Neska-koskortxua. Illia jua kaballuak buztanian modukua. Buf! [...]
 - Dana illia zan?
 - Bai. Arpegi zorrotz batekin, [dana] illia, zera emoten jua... Nik amari: “Hau zein da, ba?”, “Hori...”—hamen be jentia falta zua, iñor ez jua hemen be ta; umiak be zaintzeko ta abar ta— “Hori umiak zaintzera-ta datorren neska haxe da”, ta “Bueno, bueno, bale...” [nik orduan...]
 - Beste bat gehixao?
 - Ta etorri zittuan [...]. Gero, [hola etorritakua], ba, kafia edo merienda edo tortillia edo txorizua edo zeoze usatzen zua ta harei emon jotsen. Duranguori Teodora zua. [...]
 - Teodora?
 - Teodora. [Abadiñokua]. Ta harek... neu [...] bestia, mutikuak, badakik zela ibiltzen dian mutikuak eta begira ta begira ta... Neskiak ez jua ezebe jan;

jateko ta jateko ta “Ez”, harek ez juan probau. Haura hortxe kuartuan josteko maikiñiakin erropak josten, etorri, ta erropak josten hasi zuan haura. Bai, bai, erropak josten.

- Segiduan?

- Bai. Makiñiakin. Makiñiak “brrrrrr” ta “rrrrrr” ta “Aiba [la hostia]”. Haura lanian ikesitta jeuan, umia zuan baiña. Ama be etorri zuan gero handik noizbaitten, txiki bat. Ta holakotxe neskia zuan, baiña harek nehikua jan ebanian, ikaragarrixa ein zuan. Mekauen!

- Asko hazi zan?

- Asko! Ukatx inda jeuan.

- Zer zeuala inda?

- Ukatx.

- Ze da “ukatz”?

- Ja, ja. Leku edarrian gabizik! Ukatx eittia ze dan ez jakik eta! Sikatuta.

- Zeuala?

- Bai, iher-iher-iherra.

- Eta [zela da], “ukatz”?

- Bai, ukatz, ukatz. Arbolari be holan esaten jakuek: “Dios! Hau arbolatxuau be...”, “Bai, honek aldamenekuonek [jaok] hau ukatz einda jaok”, “Bai, hau alperrik daok hemen” ta...[...] Ba! Ezebe ez dakizue ta! Neska [martikia] ein zuan, ta igetaixakin bedarra ebagi ta astua kargauta ekarri... Aiba dios! Ni baiño bizkorrao jarri zuan haura! Ni baiño urtebete bat zaharrao edo...

- Kasi zeu bialtzeko moduan?

- Bai.

44. Baserriko neskamea, morroia

- **Erref:** SOR-003/018
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserrian izan zuten morroiaren, kriadaren inguruko azalpenak. "Ukats eginda".</p>

Transkripzioa

- Gerokua zuan politta! Gero, hamen... [hemen] ez jakixat, ba, nik. Urte asko ez juan ein harek be. Ez, ba. Guk mutilla, mutilla. Hamen lana ein bihar zuan ta aitta be beti gaixorik-eta ta hemen mutil-eske, gizonezkua bihar zuan, mutilla bihar zuan hamen. Hala, Euskaten kriaia jeuan: Marziano.

- Marziano?

- Marziano. Oreikua, Osintxuko Oreiko semia. Euskatekuorrek harek bera etorriko litzekiala hona kriaia. Ta ez jakixat nik zelan, nik ez jakixat zela, jai goiz baten etorri zuan gurera haura. Maletia hartu Euskaten bizkarran, erropatxuak batuta ta etorri zuan. Ta ama kalia zuan. Harek gauzak goguan jakaraz orraitio batzuek. Ama esniakin juanda kalera, ta aitta... ba, harek estomagotik-eta gibeletik-eta bi bider egon zuan, ba, hilgo ez hilgo, ixa hillian egon zuan bi bidar. Ixa... Bai, “Hil bihar jok, hil bihar jok”, medikua egunero etorten zuan, baiña ez zuan hil. Ta gaizki... Aittak esan jostan — ni ganajatekua, ganajatekua eitten [nebixan] igitaixakin, bedarra

batzen, [... ta ekarri], mutikotxua ta. Hemen be dana umia, zazpi ume giñuazen ta! De dios! Konejuak moduan, danian umia! Ta — esan jostan: “Hi, Marzianori lehelengo armuzua emoixok, behintzat, e? Ganajatekotara jua baiño lehenao. Jatia dauka zeoze”, ta “Bai”. Entzun jua ta “Bai, artu ta esnia jango juat nik!”, berak, “Azpilkada bat artuetesne”. Ba, mutil... Ni baiño urte bi zaharrao. Baiña ni, ni... ni ezebez! Ni soldaus... Esaten [ez juat], ba? Soldau jua aurretikan hirurogei-hirurogeta lau kilo... zenbaten jua nitzuan, ba? Hirurogeta lau kilokin. Gero bai etorri nitzuan ni larogeta lau kilokin; hogeï kilo irabazi. Artuetesnia jan jua. Baiña Euskate hasarretu [jakuan]. Redios! Ta Euskaten... Oreikuak ta Euskatekuak-eta etxeakuak zittuan; Oreiko andria Joxepa ta Oreikua ta aitzak eta... ta atzera eruan jua hemendik hartuta.

- Zein berori Marziano edo hori?

- Bai, Marziano. Hala. Ta neskia... [hau] etorri zanian, harek jotet jittuan kurriskak koittauak! Ene! Nik gaur aiña jakin izen... Bueno, orduan [edaderik ...] kitto, baiña ez zuan juango haura neskia hamendik, e! “Bueno, ba” amak esaten jotsan. Aittak ez, aittak [...]. Kastellania, zerraua, e! Kastellania. Baiña ondo, gu ondo moldatzen [giñuan], e! Gu ondo bixok... [...]. Amak “Bueno, pues tu tendrás que ir”, harek tratua inda jukan Euskatekuakin ta “Viene fulano y tienes que ir”. Ekitten zuan kurriskaz, hortxe kuartuan sartzen zuan, isten jua atia, bera ez doiala ta kitto. Gure amak esaten jotsan: “Kalera zoiaz, baiña. Ya zeuk nahi dozunian etorri gero hona be”. Ta botikarixua, botikara joian, botikara, “Ya botikara, botikara zoiaz. Han hamen baiño hobeto ibiliko zara gero, e!”.

- Baiña haura ze zan, bere amagana edo? Ala ez?

- Zein? Neskian ama?

- Botikarixua beste bat zan?

- Bai, ba, beste bat zuan haura! Oin...

- Berriro beste etxe batera morroi?

- Bai, ba! Beste batera jua bihar. Ta [...] nik, nik hanak eitten najuan [nunbaittera].

- Ez entzutiarren?

- Ez entzutiarren [be]. Ta gero jua zuan kalera. Jua edo eruan edo... [...] Ez jua denpora asko ein, e?

- Kalian?

- Egun gitxi. Egunak be gitxi [...] ezkutau zuan. Ha bere etxera jua zuan Zestaora, Bilbo ondora.

- Ta berriro ez dozu haren zerik euki?

- Ni soldau nenguanian, hementxe egon zuan hille bixan.

- Ta hortik aurrera ya kitto?

45. Amandrea inude Bilbora

- **Erref:** SOR-003/021
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Amandrea, inude joan zen Bilbora.

Transkripzioa

- Holaxe, lehen be.
- Ta Bilbora-ta juaten zian kriada-ta hemendik-eta?
- Bai, gure ama... amama e, Bilbon e, inore, inore, umia haztera...
- Inude?
- Iñore, bai.
- Iñore?
- Inore, inode edo, iñode edo,... Bai ba, andria hil partuan eta umia jaixo ta andria hil ta gero e... umia hazi bihar baten batek eta... titixa emon bihar eta titirik ez [zeuan] eta halaxek umia hazi, Maria Karmen. Haura hamen egoten zuan, Mari Karmen. Pentsaik, ta ze diru-ta [...] orduan, e? Aitta, aitta han be sarri egoten zuan.
- Bilbon?
- Bai, gure aitta, erderaz ikasten be bai, Bilbon. Harek e, haren... harek, geratu zan gizonak, Maria Karmenen aittak... itxuria txaletak edo ez jakixat ze zekan. Han, e, han egoten zien bihargiñei gure aittak erueten ei jotsen kintzenia. Emoten ei jotsen eta... langilliei.
- Ta harek ze zian, senide?
- Senide ba, kitto! Ama hantxe hazittakua ta kitto, ezebez, senidia be ezebez.
- Baxili, hor badaok, ba? Hantxe kriauegon zuan urte mordo galantian.
- Haura be bai, e? Ta zer zan, etxe handixa ta?
- Etxia handixa, uf! Etxia... kale-etxia, e? Ta han etxian, e... zidarrezkua eguan ontzixa ta dana, zidarrezkua, koillara ta dan-dana, gauza guztiak zidarrezkuak. [...] Maria Karmen, "señoritia" esaten jotsen, "señoritia", joder! Tuliakin ibiltzen zuan haura. Tulia zer dan ez dok jakingo? Tuliakin, tuliakin ibiltzen ei zuan haura, Bilbon, tuliakin. Tio Jose Mari ezkondu zanian hamentxe egon zuan haura.

46. Trikitia entzuten gari-ebaten zeudela.

- **Erref:** SOR-003/022
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:46:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika aparailua baserrira. Trikitia entzuten gari-ebaten zeudela.

Transkripzioa

- Zein zan kontatzen zenduana, e... ekarri zebala hori, musikiana?
- Haretzek... Konografua.
- Zela?
- Konografua.
- Ta hori zela izen zan, ba?
- Holako kuerdiakin. Plakak... zein da ta radixuan estilora, igual-igual. Gero hau [...]... Tio Antoniok edo ez jakixat zeinek eruan eban, harek arreglau edo, harek kuerdia etenda edo, kuerda asuntua... Ekixanak haura arreglau igual egingo jua, baiña Antoniok [be zela]...
- Ta haura, ze esan zenduan, behin ekarri zebala ta han ipiñi zebala...?

- Ba, harek... [...] jaixan ta ipintzen ei juan haura altabozekin ta... [holako] altabozak ez, e? Haura elegantia zuan! Joder! Gu hemen egoten giñuazen jai atsaldian ta ipiñi haura ta... dantzan harekin ta... jo-ta-egurra! Trikitixakin ta ipiñi haura ta... Plakak, plakak [ba euken... pesadia jeuken] plaketan be, hondatuta asko, e?, baiña... Ta harek, e, Ipiñarrietan... irittan zer dan be, hiri esango dustat baiña alperrik dok.

- Zer da?

- Irrittia, irittia. Esan [...] baiña ez dakixanari...

- Baiña esan!

- Irrittia izaten zuan, ba, gari-ebatia. Han auzoko danak, ta egun baten danak ebai ta kitto, igual.

- Danak batera batzen zian?

- Irrittia zanian bai.

- Ta beti eitten zan hori?

- Beti e... Hortarako e, nobera ibili bihar izaten zuan asko.

- Nobera beste tokixetan ibili?

- Bai, ba, tokixetara... Bozkoittira (Bagozkoitia), ta Zeleta, ta Iriarte edo Argarate Burura ta... hemen goittixan beti irittia hemen goixan. Hemengo jentia horra behera gari-ebatera juaten zuan, ta gero hemen heltzen zanian, hemen, ba, lanbrua ta denbora txarra sarri. Hemen oin be lanbrua dihardu.

- Ta bizkor ebagi bihar?

- Bizkor ebagi ta jaso egin bihar aguro. Ta Ipiñarritan irittia ta ipini jok harek... trikitixa [...] bidian, ta, bai ba, han, e, danak ondo entzun! Danak gari-ebaten laga ta jo-ta danak trikitixan, gari artian! Norberto, kentzeko diarka. Haura zuan ona haura! Nik ez najuan ezautu, baiña hala esaten juek.

47. Auzolanean egiten ziren beharrak

- **Erref:** SOR-003/023
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Auzolanean egiten ziren lanak: gari-ebatea; gari-jotzea. Auzolana nola antolatzen zen. Gari-jotzea, makinarekin egiten zuten. Arto-zuriketa. Garo-ebatearen inguruko azalpenak. Toponimia.</p>

Transkripzioa

- Hori eitten zan, irittia bakarrik eitten zan danak batera ala gehixao be bai?

- Gari-jotia eta...

- Gari-jotia be bai?

- Bai, gari-jotia. Bueno, danian gari-jotia batera.

- Ta hori zela izaten zan?

- Garixa... garixak [...] jotia! Dozena bat lagun, hamahiru-hamalau bat lagun bihar izaten zittuan. Hemen, Barrenetxetik behera, behekuak, ta Barrenetxetik gora, goikuak arreglatzen giñuazen. [...] gari-jotia zanian

hona, hurrengo Uzkaterra (Urruzkarate), gero gurera, ta Kortara, ta Goenetxeara ta Izarrera ta... etxerik etxe. Fuera!

- Ta danetara juaten zifien ta han garixa jo?

- Gero danon artianjo ta... benga!

- Ta zela josten zan garixa?

- Makiñia [jeukaun] ta makiñiak, azauak, zarra-zarra. Batzuek lastua eruan ta beste batzuk garixa ta, beste batzuk garbittu ta ekarri beste batzuk ta... Txindurrizen moduan danak. Txindurririk hor ibiltzen dittuk, ba? Igual-igual-igual-igual... Hamabi-hamalaubatz lagun.

- Ta gero artuakin be eitten zan hori?

- Eez. Bueno... Lehenago eitten ei zuan, baiña nik ez najuan ezautu.

- Ze eitten zan lehenao?

- Arto-zuritzia, arto-zuritzia. Artua heltzen zanian soruan, ba, ekarri, erretirau, ta gero gabetan artua-zuritzera.

- Gabetan juten zian?

- Gabetan, esaten juek, gabetan juaten ziala. Egunez lanian ibili ta gabian arto-zuritzera.

- Kontuak kontauaz ta?

- Kontuak kontau-ta, hala ibiliko zittuan! Nik ez jakixat. Nik ez najuan ezautu. Lehengo gauzak holaxe.

- Ta bestela ze gauza eitten zian danok batera, auzolanian ta holakuak ta?

- Auzolanian? Garo-ebaten be bai.

- Garo-ebaten be danak batera ibiltzen zifiaten?

- Garo-ebaten batzuek, batzuek, danak ez ba, seguru, batzuek bai. Gero gabian haizia etorri ta danak eruan be igual ta...

- Garuak?

- Hoixe!

- Ta gero garo-ebatera nora juaten zan jentia?

- Jentia nora? Ba, mendira! Batzuek Atxoliñera edo, ta beste batzuek Muneta-Karakate aldera-ta...

- Zuek urriñen nora juaten zifiaten?

- Gu, urriñen? Hona, Eitzagako terrenuak edo Kortakuak edo... hementxe, hementxe.

- Ta zerekin ebatzen zenden, e...?

- Igitaixakin.

- Dana?

- Dana. Igitaixakin, bildots-narrua ipini hemen aurrian, erropak apurtu ez deittian, eta... bildots-narruan danak batu. Ta igual etorri gabian haizia ta, "Aiba dios!" Jo-ta... "Aiba! Eruan dittu danak eta!", kitto! Ota artian hor, besada bat hor, [...]... kitto!

48. Bidegintza

- **Erref:** SOR-003/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bidegintza ere auzolanian egiten zuten. Udaberri eta udazkenean konpondu behar izaten ziren bideak.

Transkripzioa

- Ta bidegintzan ta ibiltzen ziñien danok batera?
- Bai, bidegintzan be bai.
- [Bi] kalietako... bidiak konpondu, harridak batu ta zulatutakuak konpondu ta...
- Ta hor izaten zian reunixuak eta?
- Bai bai, reunixuak e... bidegintzia ta... gero kuartillo bat ardaun emoten juen aiuntamentuan.
- A, hori aiuntamentuak eitten zeban?
- Bai, danak erdi mozkortuta gero. Hortik aurrerakorik... Bai ba, jaten ez juen ezer emoten ta! Lehenago [ogixa] ta... [...].
- Juan izan ziñan zu behin edo behin?
- Urtero! Behin edo behin? [Urtian haura etaratze alde], [...].
- Lehen bidiak-eta sarri kopondu bihar izaten zian?
- Udabarrixan eta udazkenian.

49. Taberna giroa; erromeriak

- **Erref:** SOR-003/025
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Taberna giroa. Baserritarrak jai egunetan joaten ziren tabernara. Borrokak; mozkorrak. Irukurutzetan, erromerian, urtero borroka egoten zen.</p>

Transkripzioa

- Kalian lehen zenbat taberna zeren?
- Ez dakit nik! Tabernia hobeto egongo zuan bai lehen be!
- Baserrixetatik eta jentia ta juaten zan tabernetara-ta, ibiltzen zan bape?
- Ke ba! Jaixan edo, mezetara juanda, egun guztian igual, kalian, mozkortuta, zaharrak-eta...
- Mozkortzen zian lehenago be, e?
- Ez! Bai oin be, ta bai lehen be... Harek ez jok barkatzen, harek burrukan eraitten jok, [...] ai-ba dios! gero, gero jo-ta egurra burrukan danak gero, hala-koño!
- Entzuten zian burruken... eta?
- Burrukak eta... horixe! Burrukak eta... betetakuan, edozer gauza.
- Zelan zian hori, esaten zenduanak, e, eskuetan ipintzekuak eta, azaldu zian ba hemen?
- Hementxe, hementxe azpitan azaldu zuan, "galopiak" edo, ez dakit zela esaten zotsen. Hemen. Gero harek e... hemen sartzen zan haura, atzaparrekin, atzaparren zulu... bere forma ta guzti, esku-barruan sartzekua, dak! Sartu esku-barruan ta burdiña, holako luzera batekuak, jo-ta burrukarako, apropos-apropos eindakuak. Tio Javierrek [eingo] juan, uste juat, taillarrian [eingo] juan, haura, nunbaiten... Bai-ba, gauza kapritxosua zittuan-ta.
- Eta horretarako, entzuten zian, lehen, jendiak erabiltzen zittuala-ta?

- Harek e... derrigor erabili bihar! Harek ez zittuan geldi egonda beti, e!
 Hau e... Osuma-Gaiñekua... Ez! Bai! Igual... Osuma-Gaiñekua izengo dok...
 Irukurutzetara juanda... Irukurutzetan... Irukurutzetan urtero burrukia.
 - Egoten zan?
 - Burrukia, jo-ta... Neu be bai ikusitta naok, aittakin edo ez dakit zela
 juanda... Mekauen Dios! Emon malluka edo makilliakin ta jo-ta joten juek
 bat, Azkoittikua edo ez dakit nun... [...] joten juek buruan... jo-ta ota arte
 baten zihar goittik behera ta... de-dios! Gu etxera edo...
 - Ta hori zer, erromerixia zeualako, edo?
 - Bai ba, erromerixia, ta han juntatzen zittuan Azkoittikuak eta,
 Elgoibarkuak eta, Osintxukuak eta, Bergakuak eta, danak eta,.... han
 kaskajo asko-ta, gero e... jipoia!
 - Ta kalia e, lehen...?
 - Gero...
 - Bueno, segi, segi!
 - Gero Guardia Zibillak e... uste juat hasi ziala juaten eta kitto orduantxe.
 Bai, ni akordatzen nok zelan egoten zian Guardia Zibillak, mutikotxuak
 juanda-ta...
 - Ta jendia bildurtu eitten zan?
 - Ez! Jentia bildurtu eitten zuan Guardia Zibillekin! Harek emon eitten eben
 gero, e? Heldu fusillari puntatik eta...

50. Guardia Zibila Plazentzian

- **Erref:** SOR-003/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Guardia Zibilak Plazentzian. Kartzela. Garai batean argia piztea debekatuta zegoen gauez. Aldasoro baserrian gertatutakoa.

Transkripzioa

- Ta hemen Plaentxian Guardia Zibil asko egoten zan lehen?
 - Lehen bai, [ez dakit nik] ze eken, baiña lagun mordua, Guardia Zibil mordua Plaentxian.
 - Ta bazeuan e... kartzelarik, eta?
 - Kartzela be-bai, kartzela be-bai, egongo ez zuan ba?
 - Ta nun zeuan ba, haura?
 - Ba, oin Errege-etxian eta "Errege-Etxian nun zeuan?", lehen plazia, "Ta nun zeuan?" Zuek ezebe ez dakizue baina, hantxe jeuazen, Errege-Etxian jeuazen, etxe-zaharra galanta, kartzelok eta danak.
 - Eta han egoten zan jentia barruan ta?
 - Barruan ta jentia, ez!, kartzelara eruandakuak han, bialdu barrura ta, itxi atia giltzakin ta, hantxe egon bihar..
 - Zuk ezautu zenduan han egondakuak eta hola?
 - Egondakuak bai, ezautu najittuan, ezautu najittuan; bi, bi bai behintzat. Bi ez, orduan, mordua. Orduan deskuidau ezkerok tak! eruaten juen kartzelara, aguro. Gabian argixa ixiotzia nahikua, tak!. Gabian kortan argixa ixiotzen bazan, hurrengo egunian, tak... Sasoi baten ezin zeikian argirik eta ixiotu,

illunian. Aldasoroko andria hil juen, argixa ixiotu jok eta, sukaldeko bentanara urten jok eta dale! sukaldian...

- Ta hor jentia zegaittik sartzen zebeu kartzelara ta, entzunda daukazu?

- Zegaittik izango zuan, ba? Ez jakixat nik zegaittik eruaten jittuen, ba, izango zuan zeoze, oin zegaittik eruaten jittuek, ba? Orduan be izango zuan zeoze.

- Kontrabanduagaittik eta holakuak be bai?

- Ez zera! Kontrabanduan-ta, ahal dan moduan...

51. Serenoa

- **Erref:** SOR-003/027
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:59:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Serenoa. Tabernen ordutegia.</p>

Transkripzioa

- Ta gabian, tabernetan ta nahi zan ordurarte ta lagatzen zebeu?

- Bai, zera! Ke ba! Gabian e, ba ordua jotakuan e... serenua, juan ta itxi ta hala! Ta [Kirueta] sereno egondako aguazilla —hor estaziñuan, hor bizi dana— harek esaten juan ederki... [Ba ei zittuan] Korostola, Calixto, beste bi edo be badittuk... hamabixetan ordua, Kalebarrenian zihar ta, Calixto ta aguazilla bera aguazillori, serenua, ta, "fi" ta, taberniori itxi ta fuera! Han bajoiak haura, Calixto, bera [allegau] orduko itxi ta kitto! argixak eta traste guztiak emendau ta, barruan jentia, baiña ezin ezer ein... Ta gero, bueltan, harek ederki esaten juan, e, bueltia ein ta bueltan juan orduko, zabalikan, tabernia zabalik, jentia, afaixa edo, zaratia edo kristua, "Nik ze ein bihar juat?", ezin ezer esan! Zabaldu, zabalteko ordua esaten ei juen, ixteko ordua, bueno, "Zabaldu ze ordutan ein bihar juau?", "Ze ordutan zabaldu bihar juau?", itxi hamabixetan ta zabaltezen badok hamabi ta larenetan, ba, hurrengo eguna, hurrengo eguna, haura! Baiña aiuntamentutik eitten jittuen horrek, "Bueno, hi, benga, jo-ta-dios!" Aiuntamentutik: "Hamabixetan itxi", "Ondo daok", "Zer ordutan zabaldu bihar dok?" Danak ixilik geratu bihar... Ze ordutan esan bihar dotsak, ba, hari zabalteko? Hamabixetan itxi... "Zabaldik hamabixak ezker" ta... Hurrengo eguna dok, ba, behin hamabixak jotakuan... "Ba nik hamabixak bost gitxian zabaldu juat" Bai ba! Danak ahua zabalik lagatzen ei jittuan harek tipuak. Hortarako argixa izan bihar dok pertsonia.

- Ta hortakuak gitxi dare?

- Egongo dittuk gaur be.

52. Ikatza idiekin nahiz bizkarrean garraiatzen zuten

- **Erref:** SOR-028/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatz asko egiten zen orduan, idiak hartu eta leran nahiz bizkarrean eramanehi zituzten ikatz zakuak; Eibarrera ere eramaten zituzten. Ikatza egiten zuten baserriak izendatzen dituzte.

Transkripzioa

JL - Munduan dian kalamidade danak tokau jakuzen guri.

J - Kalamidadiak...

Egoitz - Orduan toki askotan eitten zan iketza?

J - Bai.

JL - Orduan bai. San Andresko Paulo be makiña bat eindakua dok.

J - Bai, asko harek.

JL - Harek asko. Harek asto gaiñian zaku iketza. [... eittiaren] Sarri eruatenuan.

J - Ta haura be demasa zuan gero. Zaman hartu ta kalera ekarri.

JL - Ni ez, ni ez nok akordatzen horrekin.

J - Ene... gu bai.

Egoitz - Zeiñek hori?

J - Iketza. Idixak, (z)erenak hartu ta leran ta zaman.

Egoitz - Kalera ekarteko?

J - Bai.

JL - Saldu.

J - Gero handikan, hemendik, Eibarrera be bialtzen genduan guk, e.

Egoitz - Hemen zenbat iketzgin egongo zian orduan? Iketza eitten ebenak.

J - Iketza eitten zeбенak? Bai, ..., morduа, banaka-banaka. Basua zekanak, [...] jittuen galantak.

Egoitz - Ixa basarri danetan eitten zan?

J - Danetan ez baina...

JL - Ez, leku askotan ez. Kortan, San Andresen, Uzkatenu...

J - Uzkatenu.

JL - Barrentxen ez.

J - Barrentxen ez nok konturatzen Barrenetxekin.

JL - Sikiera ez nok harekin akordatzen. Guenetxen be bai.

J - Guenetxen be bai.

JL - Jose Guentxe.

J - Haize haundi hari, txendorra piztuta nekan.

JL - Ta harek astintzen juan!

J - Dios...

53. Txondorra egiteko lanak

- **Erref:** SOR-028/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorra nola egiten den azaltzen du. Txondor ondoan borda egin eta gau eta egun txondorra zaintzen bertan egoten ziren.

Transkripzioa

Egoitz - Ta txondorrana zela izeten zan?

J - Txendorrana? Je!

JL - Je!

J - Sekula ez dok ikusi?

Egoitz - Ez.

J - Telebisiñuan be ez?

Egoitz - Telebisiñuan bai.

J - Zatittu egurra, tolostu.

JL - Tolostu, ta gero su emon ta erre.

J - Gero zerakin, lurrakin tapau. Zotalakin.

Egoitz - Zotala ze da?

JL - Honek ez jakik ezer. Zohixa, zohixa!

J - Zohixa.

Egoitz - (ummm).

JL - Honek ez jakik, lehengo ipuiñik ezebez. Jakitzia bai nahi, baiña id(e)iarik be ez.

J - Zotala ze dan jakin ez?

JL - Ez jakixan ze dan. Txokau itten jak ala? Ni bapez.

Egoitz - Baina soixa ze dan badakit behintzat.

JL - Zotala ze dan ez jakixek honek.

Egoitz - Eta gero zela izeten zan, hortik aurrera?

J - Handik aurrera, ba, egosi itten zuan. Zelako txendorra zan ba, hainbeste. Gau ta egun zaindu in bihar haura.

Egoitz - Ta zenbat egun bihar izaten zeban horrek gutxi gorabehera?

J - Segun zelako txendorra zan.

JL - Hillebete bat.

J - Batzuek hillebete, beste batzuek hamabost egun.

JL - Batzuek aguro erre, beste batzuek siketu.

Egoitz - Ta igual zan eurixa in o...

J - Eulixa?

Egoitz eta JL - Eurixakin.

J - A, han geratze zuan haura! Edurrakin be.

JL - Keia darixola. Keia darixola geratzen zuan haura! Kontu ein bihar jako gaiñera juaten, e?

J - Uzkateko Pedro Marik edurte galanta pasau juan!

JL - Bai, tokauko zuan.

J - De dios. Han, Bidegurutzetako zelai guenian.

JL - Ez jakat goguan.

J - Nik bai. Horrek be hantxe jaukan kriau. Horrekin juan nitzuan.

JL - Koiño, Marziano,e?

J - Marziano bai.

Egoitz - Ze, txondorrakin?

J - Txendor gaiñian. Zohixakin ein txabolía ta hantxe.

JL - Hantxe.

Egoitz - Gau ta egun?

JL - Biheko!

J - Bihako!

JL - Eurixa bada eurixa ta aterri bada aterri. Zohixan azpíxan. Teillatua zohixakin.

J - Ta arpeixa zikina!

JL - Bai, hautsa galanta ta!

J - Ta nun garbitturik ez.

Egoitz - Dutxa asko ez zenduen hartuko han.

J - Han?
JL - Dutxia? Orduan ez jauan dutxarik iñun.

54. Gaez bordan txondorra zaintzen

- **Erref:** SOR-028/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bordan zeudenean baba beltza urdaiarekin eta zopa jaten zuten eta sagarren bat aukera izanez gero. Ikatza pezeta eta erdian saltzen zuten. 12 urterekin hasi zen horretan, egunez eskolara eta gaez ikatza egiten.

Transkripzioa

Egoitz - Ta jana ta?

JL - Jana? Baba beltza edo... Lapikuan ipini.

J - Urdaixa labiak. Lapikuan gairian zopia ein. Sagarren bat sasoian tokatzen bazan, ta bestela kitto.

Egoitz - Noberak preparauta?

JL - Ez, zerak preparauko jok! Oin baleok holako bizimodua, oin! Ene, ene...

J - [...] batzuk bai. Etxakiat...

JL - Ez nok akordatzen.

Egoitz - Ta diru asko etarutzen zan ikatzakin ta?

J - Ikatzak ta, zenbat uste dok ba! "Una setenta y cinco", hortxe, kilua.

Egoitz - Pezetia? Pezeta ta hirurogeita hamabost xentimo?

J - Bai. Gero pixkat igual ixotzen jua. Hirura be ixo jua.

Egoitz - Ta hortan zenbat urtekin ibili ziran?

J - Hamabi urtekin jua nitzuan ni lehenengo.

Egoitz - Zenbat urtekin?

J - Hamabikin. Gabian, ta egunez eskolara.

JL - Haura lana!

55. 6 eta erdietan jaiki, enkarguak egin eta bederatzietarako eskolara

- **Erref:** SOR-028/004
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Juan sei urte eta erdirekin eta Jose zazpi-zortzirekin hasi ziren eskolara. Juan astoan esnea hartuta joaten zen, lehenbizi enkarguak egin eta bederatzietarako eskolara. Sei eta erdietan jaikitzen ziren derrigorrean, bestela gurasoek errieta egin ohi zieten.</p>

Transkripzioa

Egoitz - Eskolara zenbat urtekin hasi ziñien zeuek?

J - Ni sei tterdikin.

Egoitz - Ta zu zenbatekin?

JL - Ni be ba, zazpi-zortzi urtekin, holako baten juango nitzuan.

J - Astua hartu aurrian ta, esniekin gaiñe(a).

Egoitz - Danok batera?

J - Danok batera. Errekauak ein ta beratzi retan eskolara.

Egoitz - Ta jaiki ze ordutan eitten ziñien ba?

J - Jaiki, ba, sei tterdiak. Jaiki ez, jaiki erain! Jaiki.

JL - Jaiki. Oingo moduan? Jaiki.

56. Gerra garaian soldaduak herrira heldu zirenekoa

- **Erref:** SOR-028/005
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Juanek 9 urte zituen gerra hasi zenean eta ondo gogoan ditu Eibarko eta Gernikako bonbardaketak. Soldaduak herrira heldu zirenekoa kontatzen du; gauzez heldu eta goizean Juanen etxera joan ziren gosaltzera. Soldaduak 7 hilabetez egon ziren inguruko mendietan.

Transkripzioa

J - Gero gerria, zazpi hillebetian egon zuan hemen frentia.

Egoitz - Ezagutu zenduen haura?

J - Gerria? Beratzi urtekin lehelena. Ta gero haura amaittu ta gerra mundiala.

Egoitz - Ta gerra denporakua ze akordatzen jatzu zeuri?

J - Asko neri. Eibarko bonbardeua eta Gernikakua eta. Gernikara abioiak pasatzen danak oindio begixen aurrian ikusten jittuat.

JL - Hirunan-hirunan.

J - Hirunan-hirunan. Lau terdiak hortara, goittik behetik.

[...]

Egoitz - Ta orduan ze, bildurra zertzen zan?

J - Bildurra? Hoixe! Ezkutu nunbaitten aguro!

Egoitz - Hemen be bai? Edozein tokittan?

J - Hemen ez, hemen ez, hemen Untzeta gain inguruan so(r)uan hor geratu zittuan zazpi bonba edo.

JL - Bonbak.

J - Kaiñonazuak edo balazuak ikutu dotsa abioiari ta fuera karga! Zoian tokira. Oindio hor egongo dittuk pare bat edo enterrauta.

Egoitz - Esplotau barik?

J - Bai. Lehen estakak sartzen jittuen haren parian. Gehixao ez nok akordatzen.

Egoitz - Ta gero soldauak edo etorri zianian akordatzen zara?

J - Puff... Bai ondo! Illara galanta markau zuan Ipiñarritan behera! Bakoitza linterna banakin.

JL - Haura zuan kuadrillia. Erreketiak...

Egoitz - Gabez?

J - Gabeko hamarrak inguruan.
 JL - Erreketiak zittuan txarrak. Falangiak hobiak.
 J - Ipiñarrittan geratu zittuan mordo bat. Hurrengo goizian gurera armozutara. Lehenao asko euan ta! Ta pagau la puñetas!
 Egoitz - Ta zenbat denporan egon zian?
 J - Zazpi hillebete terdi.
 Egoitz - Egon zian soldauak herrixan?
 J - Herrixan? Mendixan, Karakaten ta.
 Egoitz - Zazpi hillebete egon zian?
 J - Legardan ta, Mendotzen ta, San Marzialen ta, hor, gero mendira, hor San Marzialgo [bide horrek] hor gaillurrian danian.
 Egoitz - Ta zazpi hillebete egon zian, e?
 J - Bai. Eguna dok, "veintiuno de" setiembreian sartu zittuan, ta urten ei juen hillan "veintiséis de abril", ala "veintisiete", etxakixat zer zuan.
 Egoitz - Ta ze zeren, bando bat hor Karakaten ta bestia nun zeuan?
 J - Illordon. Illordo mendixan.
 Egoitz - A bai?
 J - Bai.
 Egoitz - Irure zerian?
 J - Hementxe gaiñian danian. Hortik, Azkonabittatik Intxortara.
 Egoitz - Ta hor ze izeten zan, alde batekuak bonbia batera ta bestiak bestera?
 J - Ta tiroka.
 JL - Alkarri!
 J - Diania be bai. Akordatzen nok ni. Egun baten, diania.
 JL - Aldasoko andria be garbittu juen.
 J - E?
 JL - Aldasoko andria be garbittu ebela.
 J - Orduan bentanan.
 JL - Bentanan.
 J - Bentanan, Mendoztik. Bentania zabaldu enda argixa ta "dale".

57. Erreketete eta falangistak

- **Erref:** SOR-028/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeteak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Jende askok egin zuen ihes gerra denboran herritik. Soldaduei jaten eta edaten ematen zieten eta pasadizo bat kontatzen du. Erreketete eta falangisten arteko ezberdintasunak aipatzen dituzte.

58. 1941 inguruan pasatako gosea

- **Erref:** SOR-028/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:13:49. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

1941 inguruan, gosea pasa zuten. Patata konfiskatu egiten zieten eta beraiek dandan batata (patata tankerakoa) erosi behar izaten zuten. Bonba herrian bota zutenekoa kontatzen du. Bando ezberdinetakoek elkarrenganako ezinikusi handia zuten.

59. Sorluzeko baserritar gehienak "gorriak"

- **Erref:** SOR-028/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Sorluzeko baserritar gehienak "gorriak" ziren. Nazionalistek, gorriek eta talde ezberdinek, bakoitzak igande bat izaten zuen festa egiteko.

60. Garia konfiskatzen zieten

- **Erref:** SOR-028/011
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:17:24. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Soldaduek garia kentzen zieten "gorrientzat" zela esanda, baina Jose Luisi eta Juani ez zitzaien ez gari ez dirurik heldu.</p>

61. Gose-urte gogorak; errazionamenduko janaria

- **Erref:** SOR-028/012
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gose-urte gogorak pasa zituzten. Baserritarrak, hala ere, moldatzen ziren jatekoarekin, baina kaletarrak gaizki ibili ziren. Errazionamenduan jasotzen zuten ogia, azukrea eta "boniatoa" (batata); ganaduak ere nahi ez zuen jana izan ohi zen.

62. Gerra aurretik euskaraz; gero, debeku bihurtu zen

- **Erref:** SOR-028/013
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:19:30. **Bukatu:** 00:21:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra aurreko eta ondorengo eskolako politika ezberdina izan zen: maristekin ikasi arren, gerra aurretik eta gerra ondoren zer ezberdintasun izan ziren aipatzen dute. Gerra aurretik euskaraz egin arren, gero debekatu egin zieten eta zigorra jasotzen zuten euskaraz eginez gero.

63. Eskolara goiz eta arratsalde

- **Erref:** SOR-028/015
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:24:25. **Bukatu:** 00:26:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan goiz eta arratsalde ibiltzen ziren; goiz iluntzen zuen eta artzain edo etxeko lanetara joan behar izaten zuten. Zaharragoak eta gazteagoak gela ezberdinetan egoten ziren eta kaletarrendandik baserritarrengana nabaritzen zen aldea.

64. Umetako jolasak: pilota, "kakaberaka"...

- **Erref:** SOR-028/017
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan pilotan, "kakaberaka" eta ezkutaketan jolasten zuten, besteak beste. Anekdotak bat kontatzen du.

65. Gaitzizenak jartzeko ohitura

- **Erref:** SOR-028/018
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Gaitzizenak jartzeko ohitura handia zuten eta maisu guztiei jartzen zizkieten; batzuk aipatzen dituzte.

66. 5 urterako kalera esnea saltzera

- **Erref:** SOR-028/023
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Juan 5 urterekin hasi zen izeba eta arrebarekin astoa hartuta kalera esnea saltzera laguntzen. Orduko eta gaurko bideen konparaketa egiten dute.

67. Janzkera: tunika, praka motzak eta abarkak

- **Erref:** SOR-028/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Tunika, praka motzak eta gomazko abarkak janzten zituzten. Arbitan oinutsik aritzen ziren elurretan ere.

68. Elurra egin arren, lanean

- **Erref:** SOR-028/025
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:38:47. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Elurra kentzeko "belakixa" erabiltzen zuten: zer den azaltzen dute. Elur asko egiten zuen eta kalera idietan jaisten ziren asko. Bizitzari buruzko ikuspegia azaltzen dute. Elurra eginagatik lanik ez zuten falta izaten. Anekdotak bat kontatzen du Juanek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com